

Euskal liberalak

• MARIO ZUBIAGA •

[EHUKO IRAKASLEA]

Aberatsena izan ezik doktrina aberatsa da liberalismoa. Sakonegia artikuluxka hone-tan zuzen azaltzeko. Hortaz, zenbait abertzale txepelen artean oso zabaldua dagoen bertsioari egingo diogu kasu oraingoan. Laburbilduz, Patxi zenaren leloa gau eta egun gogorarazten diguten euskal liberalerik ari natzai-zue: «*haga-usted-como-yo-y-no-se-meta-en-politica*». Kaudilloaren kasuan ironia zena, gurean inozokeria izan daitekeen arren.

Euskal liberalismo honek, noski, politika eraldatzailearen desagerpena pozaren pozez iragarri du. Lehiakideen arteko merkatu joko hutsa besterik ez baita Politika, *res publica* gero eta urriagoen kudeaketa izanik irabazlearentzako sari mugatua.

Gizarteari norabideren bat ematea edota mota guztietako zapalkuntzeta-tik askatzearen aldeko borroka... umekeria gaiztoak besterik ez dira, ez dute inongo zentzurik. Politikaren arlo birtuoso hori guztia *ingeniaritza politiko*a bailitzan baztertu dute, eta gizartearen erabateko autonomia aldarrikatuz, berez, —merkatuaren lege ezkutuarien poderioz, alegia— imajina dezakegun mundurik hoberena esku-ratuko dugula diote. Hortaz, politikaren zama jasangaitza bizkarretik kendu behar omen zaio euskal gizarte-ari.

Alabaina, berez garatuko den egungo euskal gizartearen berez sortu al da? Naturak (gizarte-merkatuaren lege ezkutu horrek) eragindakoa ote da? Ala euskaldunon borondate askearen kontra burututako berrehun urteko *ingeniaritza politiko-militarraren* ondorioa izango ote? Horren aurrean zer egin behar dugu abertzaleok? Bere sortu den euskal gizartearen kudeatu, zapalduta egotearen ustea euskal nazio-kideen artean indartzen doan bitartean? Hogei urte eman ditu EAJ-k aipatu kudeaketa liberala egiten, naziorik gabeko nazionalismo automugatu hitzpe zein eginbide, eta orain batzuz-batzuk hain kezkatuta dituen espainolismo-aren hedakuntzak politika modu horretan du iturburu emaritsuen.

Esan nahi baita, Estaturik gabeko nazioa dagoen gizartearen, liberalismo mota hori defendatzen duena, bitako bat: edo bere nortasuna (agian hobeto *edukitasuna*) gara dadin egoera politiko herren hori egokia iruditzen zaion maltzurra da, edo bere nortasun indi-

genagatik *zelango halango* konplejua duen inozoa da.

Bigarren motako euskal liberal kristauok *kontsentsu arrazional* edota demokrazia deliberatzailearen fetitxe politikoetan sinesten dute gainera (Habermas, Rawls eta enparauak gidari intelektual dituztelarik), eta betirako adostasun erabatekoaren altxor ezkutuarien bila denboran-pasan dabilta, Politikaren izaera gordin eta mingarriak behin eta berriro euskal gizartearen astintzen duen bitartean.

Euskal liberal maltzur zein inozoen hitzpe hori, indibidualista-pragmatiko-ide-lista konbinaketan islatzen dena alegia, oso kaltegarria da kulturen (nortasun kolektibo)en bioaniztasun baketsua lor dadin. Chantal Mouffe-k gogoratzen digun bezala, Politikaren dimentsio nagusia aurkakotasuna da, eta minuskulaz idazten dugun politikaren bete-behar nagusia egungo aurkakotasuna eta hortik datorren etsaien politika aurkariaren politika bihurtaraztean datza. Etsaiena da Politika potoloa, aurkariena dugu politika txikia bezain bidezkoa, eta lehiakideena ez da politika, azoka baizik. Aurkariaren politika euskal Herrian behingoz erroto dadin ingeniari-tza politikoaren faltan gabiltza. Zentzu honetan, nortasun kolektiboaren arteko funtsezko akordio-rik oraindik hitzartu ez dugunean lehiakideen arteko merkatu-politika antzueren jokoan ari-tzea alferrikakoa da.

Liberalismo politiko Estatu-nazioan sortu zen eta orduan kultura nazional suntuatzaileak antolatze oso erabilgarria izan zen bezala, gizabanakoaren aukera askearen iruzurra azpinortasun kolektiboaren kontra erabiltzen ari da batik bat, mundu merkatuaren kudeaketarako arazoa izan baitaiteke herri *txiki-politen* soberania. Liberalismo unibertsalista horrentzako *nazionalismo*a baldin bada etsaia,

abertzale liberalen obsesio nagusia ordea abertzaleon *etnizismo*arena izango litzateke. Gaztelaren mendetako inposaketa eta egungo kultura anglosaxoiaren hedakuntza basatia ez omen dira izan *etnizistak*, etnikotasuna bere

burua garatu nahi duten kultura txiki-iei leporatu zaien basakeria baita, nazionalismoa bezala. Kontu jakinak dira hauek.

Alabaina, ezin zaie hitzpe-borroka horrenbeste erraztu inongoak ez diren eta inondik inora ez doazen gure *inmigrante* existenzialei.



Euskal nazioak bere burua euskal lurralde osoan garatu nahi badu, egungo egoera politikoan euskal gizarteari galdetu beharko dio ea euskal nazio anitzaren proiektuan parte hartu nahi duen ala ez

Arzalluzek ez zituen bere hitzak ongi neur-tu, egungo giro media-tikoan ezin erakutsi baitaiteke orpo ahulik. Nahita ez baldin bazuen egin, noski...

Gaurko gizarte egoera demokraziarik gabeko urte askoren emaitza dela gogora ekarri behar baldin bada ere, etorkizunerako euskal gizartearen ezin da oinarritu euskal hiritar batzuen bazterketan.

Ezintasun hori morala, etikoa ala politikoa den bakoitzak neurtu-

ko du, berdin dio, kontua da ezinezkoa dela.

Irtenbide *etnizista* ukatuz gero, bigarren aukera proposamen *etnokrata* izango litzateke: utz gaitzate euskal nazio-kideak gure arteko Euskal Herria antolatzen. Erabat zilegi deritzot aukera horri, baina aldaketa politikoa bultzatzeko hasierako proposamena izan beharrean bukaerarako eszenatoki legez defendatuko balitz, agian emaitza ez litzateke hain onargarria izango: nazio bat, baina lurraldezko jarraipenik gabeko sistema politiko zatikatu anitz, Palestinarren moduan.

Aitzitik, irtenbide politiko bidezkoena ingeniari-tza politikoaren bitartez etor daiteke, Zein zentzutan?

Borondatean oinarritzen den Euskal nazioak bere egitura politiko soberanoa edukitzea nahia eta, hortaz, eskubidea du, baina euskal nazioa euskal gizartearen atal bat besterik ez da, eta euskal nazioak bere burua euskal lurralde osoan garatu nahi badu, egungo egoera politikoan euskal gizarteari galdetu beharko dio ea euskal nazio anitzaren proiektuan parte hartu nahi duen ala ez.

Beraz, Euskal nazioaren kide garenon eginbehar nagusia proiektu hori taxutzea izango litzateke. Azken inkestaren arabera, euskal gizarteak, PP eta PSEko botoemaile gehienak barne, proposamen hori entzun eta inongo kanpo baldintzarik gabe epaitu nahi du.

Gauzak honela, egitasmoa adostuz gero egin behar den herri kontsulta hori ez da, inolaz ere, *Pepis señoritaren* demokrazia-zaleek behin eta berriro eskatzen ari direna. Goi ingeniari-tza politikoaren sasoia baita, ez botoen enkantearena.

hirusta...



NAROA GOROSTIAGA

'Allez Calais!'

Duela hilabete batzuk, «*Allez la France!*»

entzuten genuen eta berantago «*Et un, et deux et trois zéro!*». Frantziako futbol ekipa munduko txapeldun atera zela eta, futbola sobera maite ez duen batentzat, *gizartearen opioa* dela eta, une aski gogaikarriak bizi izan ziren. Preseski, gizartearen diren arazoak hilabete batzuz futbolaren bidez, ahantziak baitziren.

Oraingoan «*Allez Calais!*» entzun dugu eta lehen erreakzioa, gisa bereko *opioa* heldu zitzaigula pentsatzea izan da.

Baina zer da Calais? Nolako hiria da? Zer gisatoko futbol taldea du? *Amateur*-ak profesionalen kontra jokatu dira aldi huntan. Miliunak irabazten dituzten jokalarien kontra, langile batzuz eta beraiekin, langile hiri oso bat, langabeziak jana duen hiria.

Frantziako finalerdietarat heltzea lortu zutelarik, telebista eta irratiaren bidez, Calais-ek Bordalaren aurka jokatu behar zuela eta, egin zen bonbardaketa mediatikoa eta oraino gehiago irabazi ondoren, jasangaitza gertatzen zen. Batez ere, delako telebista eta irrati handiek, halako erridikulo aire bat hedatzen zutelarik, jende *gaixo* horiengandik.

Azkenean finala galduta dute Nantes-en aurka Parixen. Tristeia zinez, milaka Calais-tarrentzat.

Bainan irudi triste bat gelditu bada, zera izan da: beren ekipa kuttuna zelaiean jokatzeko ezinik gelditu den Calaisko hainbat futbolzalerena, sosik ez baitzuten beren txartelaren pagatzeko...